

## 2. ariketa

Etxean arau batzuk egotea erreferentea da, bai langileentzat, bai bezeroentzat, egoera arazotsuen aurrean.

Komeni da arau horiek idatzita egotea eta lokalean erraz eta edonork ikusteko eta irakurtzeko moduko toki batean jartzea; horrela, gaizki ulerturik ez da egongo eta bezeroek errazago onartuko dute bertan dakarrena.

Langileek ondo ezagutu behar dituzte arau horiek eta horien zentzua ezagutu. Etxeke arauen bidez, giro atseginari eustea sustatu behar da.

Demagun ostalaritzako lokal baten jabea zarela; prestatu "etxeke arau" batzuk.

### ETXEKO ARAUAK

(jarraian zehaztuko ditugun gogoeten antzekoak jaso ditzakezu)

Ahal dela, alkohola edan duten bezeroek autoa ez gidatzeko ahalegina egitea, eta, horretarako, garraioaren aldetik dauzkan beste aukera batzuen berri ematea.